



LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza
Garraio Azpiegituren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES
Viceconsejería de Infraestructuras y Transportes
Dirección de Infraestructuras del Transporte

EBAZPENA, 2022ko uztailearen 27koa, Garraio Azpiegituren Zuzendariarena, zeinaren bidez ontzat ematen da “Anoeta Geltokiko Bigarren Atondoa Eraikitzeako Proiektua”.

Ebazpen honen bitartez onartzen den proiektua hau ETS – Euskal Trenbide Sareak FULCRUMi adjudikatu dion zerbitzu-kontratuaren barruan sartzen da. Kontratu horren xedea da “ANOETA GELTOKIKO BIGARREN ATONDOA ERAIKITZEKO PROIEKTUA” idaztea. Proiektua Gipuzkoako probintzian kokatzen da, Donostiako udalerrian, eta, eraikuntza-mailan, honako obra zibil honi heltzen dio: Lasarte-Hendaia Topoaren lineako Anoeta geltokiko bigarren atondoa definitzeko egin behar den obra zibila, Hendaiaiko norabideko nasetako muturrean.

Datozen urteetan Donostiako tren-saihesbidea zerbitzuan jartzearen ondorioz, bidaiarien kopurua nabarmen handituko dela aurreikusten da, eskari-azterketek adierazten dutenez. Horrek berekin dakar hiru geltoki berri irekitzea, Benta Berri eta Kontxa inguruetakoa irisgarritasuna hobetzeko. Horren ondorioz, agertoki berri horrekin, geltokiaren funtzionaltasuna aztertu behar izan da, gaur egun sarbide bakarra baitu Amara norabideko buruhorman, eta nasa-eremuan geltokia egokitu.

Anoetako geltokia Amara auzoaren hegoaldean dago, Donostian, Anoeta futbol-estadioaren aurreko oinezkoen plazan. Geltokia Errondo pasealekuarekiko paralelo igarotzen da, eta Aita Donostia plazaren eta Begiristain Doktoarearen pasealekuaren ondoan bukatzen da. Geltokira sartzeko atondo bat du, Amarako norabideko buruhorman, nasaren burualdearen gaineko urbanizazio-lursailaren kotan.

Soluzioa da atondo berri bat garatzea, eskailera finkoak eta igogailu irisgarriak izango dituen, Hendaia buruhormako nasetara sartu ahal izateko. Nasak handitu egin beharko dira, beren geometria soluzio berrira egokituzko. Bigarren atondo hori ezartzeak Anoeta plazan futbol-estadioaren aurrean oinezkoen espazioa eta mugikortasuna galtzea eragin ez dezan, plazaren azalera handitu

RESOLUCIÓN de 27 de julio de 2022 de la Directora de Infraestructuras del Transporte, por la que se aprueba el “Proyecto de Construcción de un Segundo Vestíbulo de Acceso a la Estación de Anoeta”.

El proyecto que se aprueba mediante la presente Resolución documento se enmarca en el contrato de servicios que ETS (Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca) ha adjudicado a FULCRUM para la Redacción del “PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE UN SEGUNDO VESTÍBULO DE ACCESO A LA ESTACIÓN DE ANOETA”. El Proyecto se sitúa en la provincia de Gipuzkoa, término municipal de Donostia/San Sebastián, y aborda a nivel de construcción la obra civil que es necesario llevar a cabo para definir un segundo vestíbulo de acceso a la Estación de Anoeta de la línea del Topo Lasarte – Hendaia, en el extremo de los andenes dirección Hendaia.

La puesta en servicio en los próximos años de la Variante Ferroviaria de Donostia, que conlleva la apertura de tres nuevas estaciones, mejorando la accesibilidad en la zona de Benta Berri y La Concha, prevén un importante incremento del número de viajeros, tal como indican los estudios de demanda. Esto ha llevado a tener que analizar, con este nuevo escenario, la funcionalidad de la estación, que actualmente cuenta con un único acceso situado en el testero dirección Amara, así como a adecuar la estación en zona de andenes.

La estación de Anoeta se emplaza en la zona Sur del barrio de Amara en la ciudad de Donostia, en la plaza peatonal frente al Estadio de Fútbol de Anoeta. La estación discurre paralela al Paseo de Errondo, y finaliza junto a la Plaza Aita Donosti y la calle Dr. Begiristain. Cuenta con un vestíbulo de acceso a la estación en el testero sentido dirección Amara, situado a cota del terreno de urbanización sobre la cabecera del andén.

La solución pasa por desarrollar un nuevo vestíbulo, con escaleras fijas y ascensores accesibles, que permitan acceder a los andenes en el testero Hendaia, que deberán ser ampliados para adaptar su geometría a la nueva solución. Para que la implantación de este segundo vestíbulo no suponga una pérdida de espacio ni de movilidad peatonal en la Plaza de Anoeta frente al Estadio de



egingo da. Horretarako, beharrezkoa izango da alboko bide-sistema berrantolatzea —horren behin betiko soluzioa Donostiako Udalarekin adostuta hartu da—, atondo berriaren kokalekuarekin batera, baita berori diseinatzea eta egungo atondoa birmoldatzea ere. Hori azkenik ordezkatu egingo da, bi atondoak harmonian egon daitezten Anoetako futbol-estadioaren irudi berrituarekin. Sintonia hori lortzeko, estadioa eraberritu zuen arkitekto talde berak karkasa batzuk diseinatu ditu. Karkasa horiek bidea ematen dute geltoki-estadio ingurunearen irudi integratua lortzeko, beren akabera arkitektonikoak harmonizatuta. Horrela, tren-ekipamendu berria integratzeko proposamen global koherente bat lortzen da. Era berean, nasei dagokienez, geltokia egokitu egiten da Donostialdeko metroaren lineari dagozkion estandar propioetara.

Atondo berria ezarri ahal izateko, Anoeta plazan, futbol-estadioaren parean, oinezkoen igarobiderako oztopo gehigarriak eragin gabe, plazan dagoen espazioa handitu beharko da. Horretarako, proposatu beharra dago inguruko bide-sistema lekualdatzea eta berrantolatzea (era berean, Aita Donostiako biribilgunea barne) eta ospitaleetarako igoeran (Begiristain Doktoarearen pasealekutik) biribilgune berri bat ezartzea, Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuak planteatutako proposamenari erantzuten dion trazaduraren bidez. Horrek berekin dakar hiri-ingurune horretan bide-trafikoa eta bizikleten trafikoa berrantolatzea. Birmoldaketa horren bidez, gainera, autobus-geltokiak berrantolatu nahi dira, atondo berriaren inguruan BEA bus elektriko adimendunaren etorkizuneko lineari lotutako geralekuak kokatuta eta Madril hiribidetik datozen oinezkoen pasabidetik iristen diren fluxuak murriztuta. Horrela, intermodu funtzionala erraztuko da, bi sistemen arteko transbordo azkarrago eta zuzenagoi esker.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua HAMAR MILIOI HIRUROGEITA HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMOKoa (10.076.851,17 €) da. Horrek esan nahi du lizitaziorako oinarritzko aurrekontua HAMALAU MILIOI ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMOKoa (14.875.447,70 €) dela, BEZ barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurrekontua: HAMABI MILIOI LAUREHUN ETA BI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA

Fútbol, se amplía la superficie de la plaza, y para ello es necesario llevar a cabo una reordenación del sistema viario adyacente, cuya solución definitiva ha sido adoptada en consenso con el Ayuntamiento de Donostia, junto con la propia localización del nuevo vestíbulo, así como el diseño de éste y la remodelación del vestíbulo actual, que finalmente se sustituye para que ambos vestíbulos armonicen con la recién renovada imagen del Estadio de fútbol de Anoeta. Para lograr esa sintonía, el mismo equipo de arquitectos que llevó a cabo la reforma del estadio ha diseñado unas carcasas que permiten conseguir una imagen integrada del entorno Estación-Estadio mediante la armonización de sus acabados arquitectónicos, consiguiendo una propuesta global coherente de integración del nuevo equipamiento ferroviario. Igualmente se incluye la adecuación de la estación a nivel de andenes a los estándares propios de la línea del metro Donostialdea.

Para que la implantación del nuevo vestíbulo sea posible, sin que ello suponga un obstáculo adicional en el tránsito peatonal de la Plaza de Anoeta frente al Estadio de Fútbol, se deberá ampliar el espacio disponible en la plaza, y para ello es necesario proponer el desplazamiento y reordenación del sistema viario circundante, que incluye también la rotonda de Aita Donosti y la implantación de una nueva rotonda en la subida a hospitales por la calle Dr. Begiristain, mediante un trazado que responde a la propuesta planteada por el Departamento de Movilidad del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, y que supone una reordenación del tráfico viario y ciclista en este entorno urbano. Con esta remodelación se incluye además la idea de reordenar las paradas de bus, situando en las proximidades del nuevo vestíbulo las paradas asociadas a la futura línea del BEI (Bus Eléctrico Inteligente) y disminuyendo los flujos que llegan desde el paso de peatones procedentes de la Avenida Madrid, favoreciendo el intermodo funcional, con transbordos más rápidos y directos entre ambos sistemas.

El Proyecto tiene un presupuesto de ejecución material que asciende DIEZ MILLONES SETENTA Y SEIS MIL OCHOCIENTOS CINCUENTA Y UN EUROS CON DIECISIETE CÉNTIMOS (10.076.851,17 €), que significa un presupuesto base de licitación con IVA de CATORCE MILLONES OCHOCIENTOS SETENTA Y CINCO MIL CUATROCIENTOS CUARENTA Y SIETE EUROS CON SETENTA CÉNTIMOS (14.875.447,70 €), y un presupuesto para conocimiento de la Administración sin IVA de DOCE MILLONES CUATROCIENTOS DOS MIL OCHOCIENTOS VEINTISEIS EUROS

LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOKOA
(12.402.826,99 €) BEZik gabe.

CON NOVENTA Y NUEVE CÉNTIMOS
(12.402.826,99 €).

Obrak egiteko HOGEITA HAMAR (30)
hilabeteko epea aurreikusten da.

El plazo de ejecución estimado para las obras es de
TREINTA (30) meses.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu; halaber maila formalean berrikusi du proiektua eta berresten du bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, maila formalean, beharrezko dokumentuak eta indarrean dagoen araudia sartzeari dagokionez, edukari, sinadurei eta alderdi formalei, beharrezko kalkuloinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukari dagokienez.

Los Servicios Técnicos de Euskal Trenbide Sarea (ETS) han verificado que este proyecto responde a su objeto y cumple los requisitos exigidos por la Ley de Contratos del Sector Público y por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, por cuanto recoge los aspectos suficientes y necesarios para su ejecución por contrata; así mismo han revisado el proyecto a nivel formal y ratifica que cumple con lo estipulado en la Ley de Contratos del Sector Público y el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en cuanto a la inclusión de los documentos necesarios y la normativa vigente en relación a su contenido, las firmas y aspectos formales, las bases e hipótesis de cálculo necesarias y el contenido relacionado en el artículo 233.1 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Organo honek eskumena du Gobernu Kontseiluari erreserbatuta ez dauden trenbide sareko proiektuak egiteko eta onartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021ko urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Este órgano es competente para la elaboración y aprobación de los proyectos de la red de Ferrocarril que no estén reservados al Consejo de Gobierno, según lo dispuesto en el artículo 16.2 b) del Decreto 11/2021 de 19 de enero de 2021, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau.

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación.

EBATZI DUT:

RESUELVO:

LEHENA: “ANOETA GELTOKIKO BIGARREN ATONDOA ERAIKITZEKO PROIEKTUA” onartzea. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua, BEZ barne, HAMALAU MILIOI ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMOKOA (14.875.447,70 €) da, eta obrak egiteko epea HOGEITA HAMAR (30) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

PRIMERO: Aprobar el PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE UN SEGUNDO VESTÍBULO DE ACCESO A LA ESTACIÓN DE ANOETA” con un presupuesto base de licitación, IVA incluido, de CATORCE MILLONES OCHOCIENTOS SETENTA Y CINCO MIL CUATROCIENTOS CUARENTA Y SIETE EUROS CON SETENTA CÉNTIMOS (14.875.447,70 €), y con un plazo de ejecución estimado para las obras de TREINTA (30) meses.

BIGARRENA: Eraikuntza proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaraztea, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion Eraikuntza proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta

SEGUNDO: La aprobación de este proyecto Constructivo conlleva la declaración de utilidad pública o interés social de las obras, la necesidad de ocupación y la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados



eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari bidali beharko zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldeaz aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Jendaurrean jartzen da, guztiak horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 27an.

relacionados en el anexo correspondiente del propio Proyecto Constructivo.

Esta resolución no es definitiva en vía administrativa y contra ella los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes, dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación o publicación, dirigiendo el escrito de interposición bien a este órgano, bien al Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes.

Las Administraciones Públicas podrán interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos (2) meses, ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de poder efectuar requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz a 27 de julio de 2022



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO BAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

DOLORES DE JUAN DE MIGUEL
GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE



D^a MARIA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL
Garraio Azpiegituraren Zuzendaria /
Directora de Infraestructuras del Transporte
EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila /
Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes
Donostia-San Sebastián, nº 1
Edificio Lakua Eraikina 1
01010 - VITORIA-GASTEIZ

Bilbon, 2022ko maiatzaren 30ean / Bilbao, 30 de mayo de 2022

Andre agurgarria:

Muy Sra. nuestra:

Idazki honekin batera, "Anoetaren geltokirako sarbideko bigarren atondo bateko eraikuntza- proiektua" jasotzen duen esteka bat bidaltzen dizugu, onespenerako.

Adjunto remitimos un enlace con el "Proyecto Constructivo un segundo vestíbulo de acceso a la Estación de Anoeta" para su aprobación.

Esteka hau izango litzateke:

El enlace sería el siguiente:

<https://hodei.ets-rfv.eus/s/Qgx5AtiYAb8yyMs>

<https://hodei.ets-rfv.eus/s/Qgx5AtiYAb8yyMs>

Begirunez.

Atentamente.

Sin. / Fdo.: Ernesto Martínez de Cabredo
Zuzendari Nagusia / Director General



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Eranskina/Anexo: Aipatutakoa/Citado
DG/GV

2022 EKA. 01
JUN. 01

SARRERA	IRTEERA
Zk. 370001	Zk.